


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



ZTF-FCT

Zientzia eta Teknologia Fakultatea  
Facultad de Ciencia y Tecnología



Gradu Amaierako Lana  
Fisikako Gradua

# Optika irakasgaiaren terminologia-hiztegi eleaniztuna egitea eta terminologia aztertzea

Egilea

Markel Garralda Zubimendi

Zuzendaria

Igone Zabala Unzalu  
Iñigo Etxebarria Alzaga



## Laburpena

Lan honetan, Zientzia eta Teknologia Fakultatean eskaintzen den Fisikako Gradu irakas-materialetatik abiatuta, Optika irakasgaiko terminologia errealak detektatu eta hiztegi eleaniztun bat osatu da Terminologia Zerbitzurako Online Sistemari (TZOS) kontsultagai jartzeko. Terminologia Sareak Egunerako (TSE) programarako garatutako metodologia erabili da horretarako. Bestetik, sortutako hiztegia, eskura ditugun ohiko kontsulta-baliabideekin erkatu da, Optika irakasgaiko terminologiaren presentzia zenbaterainokoa den jakiteko. Azkenik, hiztegi eleaniztuna osatzen duten terminoen azterketa linguistikoa ere egin da, Optika irakasgaiaren erabilitako terminoen esanahiaren eta formaren profila irudikatzeko.



# Aurkibidea

<b>1</b>	<b>Sarrera</b>	<b>7</b>
<b>2</b>	<b>Metodologia</b>	<b>13</b>
<b>3</b>	<b>Emaitzak eta eztabaida</b>	<b>15</b>
3.1	Optika irakasgaiaren hiztegiaren ezaugarriak . . . . .	15
3.2	Hiztegi eta datu-base espezializatuekiko alderaketa . . . . .	16
3.2.1	TZOSekiko erkaketa . . . . .	16
3.2.2	ZT Hiztegiarekiko erkaketa . . . . .	18
3.2.3	Euskalterm-ekiko erkaketa . . . . .	18
3.3	Datuen analisisa . . . . .	20
<b>4</b>	<b>Terminoen azterketa linguistikoa</b>	<b>23</b>
4.1	Azterketa semantikoa . . . . .	23
4.2	Denominazioen egitura . . . . .	24
4.3	Terminoen aldakortasuna . . . . .	27
4.3.1	Autoaldakortasuna . . . . .	27
4.3.2	Heteroaldakortasuna . . . . .	28
<b>5</b>	<b>Ondorioak</b>	<b>31</b>
<b>6</b>	<b>Bibliografia</b>	<b>33</b>
<b>A</b>	<b>Eranskina - UPV/EHU datuak</b>	<b>35</b>
<b>B</b>	<b>Eranskina - Hiztegi eleaniztuna</b>	<b>37</b>
<b>C</b>	<b>Eranskina - Etiketa Semantikoak</b>	<b>51</b>
<b>D</b>	<b>Eranskina - Denominazioen osaera</b>	<b>63</b>



# 1 Sarrera

Lan honen helburu nagusia da fisika arloko euskarazko terminologia akademiakoaren deskripzioan eta finkapenean ekarpen bat egitea, Zientzia eta Teknologia Fakultatean irakasten den irakasgai batean erabiltzen den terminologia erreala ikusgai eginez eta jasotako terminologiaren azterketa eginez. Helburu horri begira, UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko Fisikako Graduan irakasten den *Optika* irakasgaiaren erabiltzen den terminologia erreala bildu, eta hiztegi eleaniztun bat prestatu da, Terminologia Zerbitzurako Online Sistema (TZOS) datu-base terminologikoan kontsultagai jartzeko. Ondoren, bildutako terminologiaren azterketa ere egin da.

Edozein komunikazio-alorretan erabilgarria izan nahi duten hizkuntzek, terminologia propioa behar-beharrezkoa dute [1]. Euskarak hizkuntza normalizatu eta bizia izateko, funts-funtsezkoa du komunikazio espezializatua izatea arlo guztietan. Espezialitate-alor hauetan komunikatzeko, baina, euskarriak behar-beharrezkoak dira. Hau da, komunikazioa posible izan dadin, ezinbestekoa da gai bakoitzeko terminologia garatzea. Izan ere, ikerketa-talde edo lan-talde batean, gai jakin bati buruz aritzean, taldekideen arteko diskurtsoa gertatuko da eta diskurtso hori euskaraz denean, euskarazko terminoak erabili beharko dira ezinbestez. Termino horiek terminologia erreala osatuko dute, gai bakoitzeko adituek beraien komunikazio errealean erabilitakoak izango baitira. Lan honetan, terminologia erreal hori identifikatu eta horren irudi bat osatzen saiatuko gara.


Mundu akademikoak protagonismo berezia du hizkuntzaren normalizaziorako gakoak diren zenbait prozesutan. Batetik, erregistro espezializatuen elaborazioaren protagonistak adituak dira, eta erregistro horien garapen naturala goi-mailako alor akademikoetan gertatzen da nagusiki [2]. Beraz, esan genezake terminologia erreala alor horietan aurkituko dugula. Bestalde, esparru akademikoa funtsezkoa da estandarren ezarpenerako eta garapen edo lantze funtzionalerako eta berebiziko ekarpena egiten du euskarazko terminologiaren garapenean eta hedapenean. Izan ere, unibertsitateak prestatzen ditu etorkizuneko aditu-profesionalak, eta giltzarria da diskurtso espezializatuaren lehen oinarriak jartzen dituen bigarren hezkuntzaren eta etorkizuneko adituei diskurtso zientifiko eta profesionalak egokiro kudeatzea eskatuko dien lan-munduaren arteko zubi gisa[3]. Beste era batera esanda, unibertsitatean terminologia espezializatuarekin zuzeneko harremana izango du ikasleak, kontzeptu zientifikoak ikasteaz gain, ezagutza zientifikoa hitzaren bidez hedatzen denez, kontzeptu horiek adierazten ere ikasten duelako. Esperimentu zientifiko bat egiteak berarekin dakar lortutako emaitzen adierazpena eta eztabaida, hori egin gabe ezin baitaiteke eman ikerketa bat bukatutzat.

Horregatik, zientzia ikastean, beharrezkoa da horri dagokion hizkera ezagutzea eta komunikazio akademiko-profesionaleko gaitasuna garatzea. Komunikazioa askotarikoa izan daiteke gainera:

aditua — aditua	ikerketa-testuak
	txosten teknikoak
aditua- — beste alorreko aditua	ikerketa-testuak
	txosten teknikoak
aditua — ikasleak	testu didaktikoak
aditua — gizartea	dibulgazioa

1.1 taula: Komunikazio-egoerak

Testuinguru honetan Fisikako Graduko liburu zuriak<sup>1</sup>, graduko gaitasun orokorrak aipatzean, kontuan hartzen ditu komunikazio-gaitasunak. Fisikako Graduko ikasketa-planak, berriz, honela definitzen du G008 gaitasuna: *ideiak, problemak eta emaitza zientifikoak, ahoz nahiz idatziz, azaltzeko gaitasuna*. Gainera, argi dago eguneratuta egon nahi duen hizkuntza batek taulan ageri diren komunikazio-egoera desberdinetara moldatzeko adina baliabide terminologiko izan behar dituela. Lehen aipatu dugun bezala, unibertsitateak toki berezia du diskurtso-mota ezberdinetara egokitu ahal izateko baliabide terminologikoak finkatzeko garaian:



1.1 irudia: Diskurtso motak. (Parodi 2007) [3]

<sup>1</sup>Ikus [Fisikako Graduko Liburu zuria](http://www.aneca.es/var/media/150412/libroblanco_jun05_fisica.pdf) www.aneca.es/var/media/150412/libroblanco\_jun05\_fisica.pdf



Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) ez dago deskribatu den errealitatek aparte, eta are gutxiago euskararen kasuan. Bere estatutuetoako 4. artikuluan, helburuei buruz ari denean, honako hau aipatzen da: *euskararen garapena eta normalizazioa indartzea, bere eskumenen eremuan*. Honen harira, martxan da UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidaria (2013-2017)<sup>2</sup>.

Gaur egun D eredia nagusitzen da unibertsitatek kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan, eta horrek bere isla du unibertsitatean, bai hautaprobetan baita matrikulazioetan ere. Azken urteetako bilakaerari begiratzea besterik ez dago horretaz jabetzeko. Hautaprobek kasuan 1997-1998 ikasturtean % 30 izan ziren euskaraz egin zuten ikasleak. 2013-2014 ikasturtean, berriz, bikoiztu egin da portzentaje hori. Gauza bera esan dezakegu lehen urteko matrikulazioen kasuan. Urtez urteko datuen xehetasun guztiak ikus daitezke A eranskineko tauletan.

Matrikulazio datu horiek Zientzia eta Teknologia Fakultatean, eta gure interesekoa den Fisikako Graduan ere badute eragina. Azken horretan, euskaraz egindako lehen urteko matrikulazioen datuetan urtetik urtera aldaketak egon ohi badira ere, nabarmena da goranzko joera. Datuak argiak dira: 2002-2003 ikasturtean ikasleen % 46 matrikulatu ziren euskaraz, eta 2013-2014 ikasturtean, berriz, % 61. Datu hauen bilakaera ere, A eranskinean aurki daiteke. Gainera, Fisika Graduko euskarazko matrikulazioen datua ZTF-FCTko batezbestekoa baino handiagoa da eta gaur egun, fakultate honetan, Biologiako eta Geologiako graduek soilik dute ehuneko handiagoa.

Honek guztiak bere eragina izan du irakas-eskaintzan ere. Egun 22.324 kreditu eskaintzen dira ikasketa-plan guztien artean. Horietatik 19.928,5 gaztelaniaz ematen dira (% 89,27); euskaraz, 18.061 (% 80,60) eta beste hizkuntza batzuetan, 1.601 (%7,17). Bestalde, UPV/EHU dauden irakasle elebidunen kopurua %47 da.

Zenbaki horietan oinarrituta esan daiteke gero eta gehiago direla euskaraz prestatzen diren etorkizuneko aditu eta profesionalak. Gainera, aditu horiek euskaraz komunikatzeko gai izango dira, edo, beste era batera esanda, zientzia, eta gure kasuan fisika, euskaraz sortzeko eta komunikatzeko ahalmena izango dute. Horretarako, baina, beharrezkoa izango dute terminologia espezializatua eta horren garapena unibertsitateko geletan gertatuko da batik bat.

Nolanahi ere, zenbait arazo eta oztopo detektatu dira erregistro espezializatuen eta terminologiaren garapenean. Batetik, aditu-irakasleen artean termino-

<sup>2</sup>Ikus [Euskararen II. Plan Gidaria\(2013-2017\)](http://www.ehu.es/documents/2660428/2968265/II_plan_gidaria.pdf) www.ehu.es/documents/2660428/2968265/II\_plan\_gidaria.pdf

logia partekatzeke sare arinik eza oztopo gertatzen da. Izan ere, irakasleen eta ikasleen arteko komunikazio-sareak oso arinak dira, baina irakasleen artekoak oso geldoak eta eskasak. Bestetik, ikasgeletan gertatzem den komunikazioa testu espontaneoan eta ahozko testuen bitartez gertatzen da eta, beraz, erabiltzen diren ahozko nahiz idatzizko baliabideak eta terminologia biltzeko eta deskribatzeko zailtasunak nabarmenak dira. Azkenik, terminologiaren gaineko interbentzioa gertatzen da etengabe, eta erabilera erreala kontuan hartu gabe egindako interbentzioek baliabide linguistiko horien garapena oztopatzeko arriskua izan lezakete[4] [5].

Aipatu arazoei aurre egiteko, *Terminologia Sareak Ehunduz* (TSE)<sup>3</sup> programa jarri zen martxan 2008an UPV/EHUko Euskara eta Eleaniztasun Errektoreordetzaren babesarekin eta lan hau programa horren testuinguruan kokatzen da. TSE programak UPV/EHUn lantzen diren espezialitate-alorretako terminologiaren garapenean eta finkapenean laguntzen du [2]. Horretarako, unibertsitateko ikasgeletan terminologia erreala ikusgai egiteko metodologia, tresnak eta baliabideak garatu dira. Programaren lan-unitatea titulazio edo gradu bateko irakasgai bat da, bera baita komunikazio-unitate akademikoa, eta erregistro akademikoen garapenaren protagonistekin, irakasle eta ikasleekin, zuzenean lan egitea ahalbidetzen du. TSE programaren helburua unibertsitateko ikasgeletan erabiltzen den terminologia erreala deskribatzea da.

Sei ikasturteko ibilbidean emaitza oparoak eman ditu *Terminologia Sareak Ehunduz*<sup>4</sup> programak, zortzi milioi hitzetik gorako corpusa (Garaterm corpusa)<sup>5</sup> bildu baita UPV/EHUn lantzen diren espezialitate-alorretan erabiltzen diren askotariko dokumentuez osatuta. Baina TSE programan, testu akademikoak biltzeaz gain testu horietan erabilitako terminologia ere deskribatzen da, irakasgaien hiztegi eleaniztunak osatuz. Irakasgaien hiztegi eleaniztunak kontsultagai jartzen dira TZOS aplikazioan [6]. TZOSek aukera ematen du terminoak proposatzeko, kontsultak egiteko eta, foroan bitartez, terminologiaz eztabaidatzeko, nahiz eta aukera horietako batzuk oraindik ez diren ustiari. Gaur egun, TZOS datu-base terminologikoan 91 hiztegi eleaniztun eta 80.000 termino inguru kargatu eta kontsultagai jarri dira.<sup>6</sup>

---

<sup>3</sup>Terminologia Sareak Ehunduz programari buruzko informazioa: [TSE programa](http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/tse-programa/)  
[http://garaterm.ehu.es/garaterm\\_ataria/tse-programa/](http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/tse-programa/)

<sup>4</sup>TSE programaren [ibilbidea](http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/tse-programa/the-development-of-the-tse-2008-2013/)[http://garaterm.ehu.es/garaterm\\_ataria/tse-programa/the-development-of-the-tse-2008-2013/](http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/tse-programa/the-development-of-the-tse-2008-2013/)

<sup>5</sup>Garaterm [corpusa](http://ixa2.si.ehu.es/garaterm-kontsulta/cgi-bin/kontsulta.py)<http://ixa2.si.ehu.es/garaterm-kontsulta/cgi-bin/kontsulta.py>

<sup>6</sup>Terminologia Zerbitzurako On-line Sistema [TZOS](http://tzos.ehu.es/?setuilang=eu)<http://tzos.ehu.es/?setuilang=eu>

Garaterm corpusean bildu diren eta TZOS datu-basean kargatu diren terminologia hiztegiei esker, posible da terminologia-kontsultak egitea eta terminologia hori testuetan nola erabili den ikustea. Bestalde, irakasgai batzuetako terminologia beste irakasgai batzuetakoarekin alderatu daiteke TZOSi esker eta, honela, posible da terminoen aldakortasuna aztertzea.

Aipatu baita ere terminoak erabiltzeko beharra ez dela mundu akademikora soilik mugatzen. Egun, merkatu globlak eta enpresa-jarduera barne antolatzeko nahiz nazioartekotzeko nahiak terminologia eleaniztunaren erabilera sistematizatzeko beharra ekarri du, baita industria mundura ere [9]. Hortaz, ez da harrizkoa terminologia kontsultatzeko eta kudeatzeko aplikazio informatikoak ugaltzea[6]. Lan honetan osatu dugun hiztegia lehen aipatu dugun TZOS plataforman jarriko da ikusgai, baina badira beste datu-base terminologiko eta hiztegi batzuk ere. Gure kasuan, Eusko Jaurlaritzaren Terminologia Batzordearen bermea duen *Euskalterm*<sup>7</sup> datu-base terminologikoan terminologia ofiziala dugu kontsultagai. Bestalde, komunikazio esparu espezializatuetan erabiltzen den terminologia, *Elhuyar Zientzia eta Teknologiaren Hiztegia* (ZT Hiztegia)<sup>8</sup> ere aurki dezakegu. Lan honetan terminologia erreala aztertuko dugu eta, hortaz, garrantzitsua izango da aipatu berri ditugun plataformetan guk osatuko dugun hiztegiaren denominazioak zenbateirano jasota dauden aztertzea.

Lan honen bigarren atalean, TSE programaren eta lan honen funtsa diren oinarri teoriko-metodologikoez arituko gara eta horretarako erabili den metodologia xeheki azalduko da. Hirugarrenean, hiztegiaren ezaugarriak izango ditugu aztergai, eta zenbait datu interesgarri lortuko ditugu. Laugarrenean, osatu dugun hiztegiaren azterketa linguistikoa egingo dugu: terminoak semantikoki aztertu, horien osaera nolakoa den ikusi eta detektatutako aldakortasuna ikertuko dugu. Azkenik, Optikako terminologiaren irudi bat osatzeko, aurreko ataletan egindako azterketen ondorioak bilduko ditugu.

---

<sup>7</sup>Kontsultatu hemen [Euskalterm](http://www.euskara.euskadi.net/q91EusTermWar/kontsultaJSP/q91aAction.do) datu basea: [www.euskara.euskadi.net/q91EusTermWar/kontsultaJSP/q91aAction.do](http://www.euskara.euskadi.net/q91EusTermWar/kontsultaJSP/q91aAction.do)

<sup>8</sup>Zientzia eta Teknologia Hiztegia [ZT Hiztegia](http://zthiztegia.elhuyar.org) [zthiztegia.elhuyar.org](http://zthiztegia.elhuyar.org)



## 2 Metodologia

Azterlan honetan Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Fisikako Gradu-ko *Optika* irakasgaiaren terminologiaren hiztegi eleaniztuna osatu da, eta horren azterketa egin da, terminologia horren finkapenean eta garapenean ekarpen bat egiteko asmoz.

TSE programarako garatutako metodologia eta tresnak erabili dira terminologia-hiztegia osatzeko. Hasteko, irakasgaiaren erabili diren dokumentu eta irakas-materialak (ikasle-gidak, apunteak, ariketak, praktika-protokoloak, azterketak...) bildu dira, eta Garaterm lan-ingurunera igo dira, behin dokumentu horien prozesamendu formal eta linguistikoa egin ondoren, Garaterm corpusean kontsultagai jartzeko. Bestalde, Erauzterm termino-erazlearen bidez, kargatutako testuetan erabilitako terminologia erreala erazi da. Erauzterm termino-erazle erdiautomatikoa da eta estrategia estatistiko eta linguistikoak baliatzen ditu termino-hautagaiak proposatzeko. Ondoren, beharrezkoa da alorreko aditu batek termino-hautagaien balioztapena egitea, hau da, Erauztermek proposatutako hautagaiak benetan terminoak diren ala ez egiaztatzea. Terminoak espezialitate-alor jakin batean, gure kasuan Optikan, kontzeptu espezializatuak adierazteko erabiltzen diren unitate-lexikoak dira. Gure hiztegia jakintza-alor batekin (Fisika - Optika) lotzen badugu ere, irakas-materialetan bestelako jakintza-eremuetan koka genitzakeen terminoak ere agertu zaizkugu, espero zitekeenez. Adibidez, termino-hautagaien artean bada TZOSen Matematikan, Kimikan, Osasun Zientzietan edo Biziazen Zientzietan kokatuta dauden terminoak. Horrelakoetan ere, adituak erabaki behar izan du termino horiek zenbaterainoko pisua duten aztergai dugun irakasgaiaren eta bukaerako hiztegiaren jasotzea komeni den ala ez. Lan honen egilea Fisikako Gradua amaitzera doan ikaslea da, eta graduan zehar lortutako ezagutzak kontuan hartuta, aditutzat har daiteke neurri handi batean. Nolanahi ere, landutako irakasgaiko irakasleari kontsultak egin dizkio prozesu osoan zehar. Terminoen balioztapena amaitutakoan ere, egindako lana egiaztatu du irakasleak, hiztegiak erabateko bermea izan dezan. Behin terminologiaren balioztatzea bukatuta, esportazioa egin da, eta lanaren hurrengo urratsak kalkulu-orrietan egin dira.

Aipatu beharrekoa da balioztatze-prozesua egindakoan terminoen azterketaren lehen pausoak ere eman direla. Izan ere, Erauztermek integratuta dauzka, eskusio-corpus modura, Elhuyarren Zientzia eta Teknologia Hiztegia (ZT hiztegia) eta TZOS datu-baseko terminoak. Hartara, gure hiztegiko terminoak ZT Hiztegiaren edota TZOS plataforman txertatuta ote dauden, eta TZOSeko terminoen kasuan, zein jakintza-eremutan dauden ere jakin dezakegu. Bestalde, gure azterketarako terminoak Euskalterm terminologia-banku publikoan jasota dau-

den ala ez ere kontuan hartu dugu. Egiaztatze prozesu hori eskuz egin behar izan dugu, Euskalterm datu-base terminologikoa ez baitago oraindik integratuta Erauzterm erauzlean.

Orain arte termino eta termino-hautagaiez hitz egin badugu ere, zehaztu beharrekoa da terminoak forma linguistikoa (denominazioa) eta kontzeptu espezializatua (nozioa) uztartzen dituzten unitateak direla eta, Erauztermek formari baino erreparatzen ez dionez, esportazioaren ondoren beharrezkoa dela denominazioen eta nozioen arteko lotura ezartzea. Izan ere, zenbaitetan gertatzen da hainbat denominaziok kontzeptu bera adierazten dutela (sinonimia) edota denominazio bakarra hainbat kontzeptu adierazteko erabiltzen dela (polisemia). Sinonimiaren eta polisemiaren azterketaren ondorioz, hiztegiko sarrera bakarra edo hainbat sarrera osatuko dituzte testuetatik erauzitako denominazioek. Esaterako, sarrera berean kokatu dira *anplitude-zatiketa/anplitudearen zatiketa* edo *begirale ametroppe/ametrope*.

Termino-hiztegiaren osaerari bukaera emateko, TZOSen kargatzeko hiztegia eleaniztuna izatea nahi dugunez, termino bakoitzari dagozkion beste hizkuntza batzuetako (gaztelania eta ingelesa) ordainak bilatu dira, . Beste hizkuntzetako ordainek, gainera, forma-aldakiak identifikatzen ere lagundu digute. Ikus lortutako hiztegia B eranskinean.


Optika irakasgaiko terminologia-hiztegi eleaniztuna erabat osatu ondoren (B eranskina), lortutako hiztegiaren ezaugarriak aztertu dira: Erauztermek proposatutako termino-hautagai kopuruaren eta lortutako hiztegiaren sarrera-kopuruaren arteko alderaketa eta ZT hiztegiarekiko, TZOSekiko eta Euskalterm terminologia-banku publiokoarekiko erkaketa. Bukatzeko, hiztegian bildutako terminoen azterketa linguistikoa egin da: azterketa semantikoa, denominazioen egituraren azterketa eta forma-aldakortasunaren azterketa (autoaldakortasuna eta heteroaldakortasuna) [7] [8].

### 3 Emaizak eta eztabaida

Atal honetan Zientzia eta Teknologia Fakultatean irakasten den *Optika* irakasgaiko dokumentuetatik abiatuta osatu den hiztegiaren gainean egindako azterketen emaitzak azalduko ditugu. Batetik terminologia-hiztegiaren datu orokorrak azalduko ditugu. Bestetik, terminoen ezaugarriak ere aztertuko ditugu eta aurretik aipatu ditugun hiztegi eta datu-base terminologikoekin ere alderatuko dugure hiztegia.

#### 3.1 Optika irakasgaiaren hiztegiaren ezaugarriak

Bigarren atalean azaldu dugun prozedurari jarraituz, Erauzterm termino-erauzleak aztergai dugun irakasgaiaren dokumentuen prozesamendu linguistikotik abiatuta proposatu dituen termino-hautagaiak 4151 izan dira. Hala ere, azaldu dugunez, termino-erauzleak erdiautomatikoak dira, eta, proposatzen dituzten termino-hautagaiak berrikusi behar izan dira, amaierako glosategian jasoko ditugun terminoak zehatz aukeratzeko. Lehen balioztatze prozesu batean, termino-hautagaiak eskuz landu ondoren, 508 denominazioko zerrenda osatu da. Ondoren, errepikatuta zeudenak ezabatu eta okerren bat zutenak baztertu dira. Bigarrenik, sinonimo edo aldaki diskurtsibo bezala identifikatu diren denominazioak sarrera bakarrean bildu dira. Azkenean, 392 sarrerako hiztegia osatu da. Ikus osatutako hiztegia B eranskinean.



3.1 irudia: Termino hautagaiak eta hiztegioko sarrerak

Aipagarria da Erauztermek proposatu arren azkenerako baztertu diren hautagaien kopurua. Kargatutako dokumentuetatik egindako proposamenak askotariokoak izan dira eta gure intereseko terminoak identifikatu behar izan ditugu, hau da, Optikako hiztegi-unitate espezializatuak. Balioztapena egiterakoan, hautagai bakoitza hiztegi orokorrekoa den, hiztegi tekniko komunean kokatzen den, edota

Optikako espezialitate-alorreko terminoa dugun bereizi behar izan dugu. TSE programaren irizpideei jarraituz, gure interesekoak eta, ondorioz hiztegian txertatu ditugunak, azken bi multzoetako hautagaiak izan dira.

Hiztegiko sarrerak osagai kopuruaren arabera sailkatu ditugu, terminoen konplexutasuna ikuste aldera. 3.1 taulan ikus daitekeen bezala, termino gehienak bi osagaikoak dira:

Osagaiak	Terminoak
1	95
2	287
3	10

3.1 taula: Terminoak osagai kopuruaren arabera

## 3.2 Hiztegi eta datu-base espezializatuekiko alderaketa

Atal honetan gure hiztegiko sarrerak eskura ditugun datu-base eta hiztegiekin alderatuko ditugu, Optikako terminologia zenbateraino jaso dagoen ondorioztatzeko.


### 3.2.1 TZOSekiko erkaketa

Lehenbizi TZOSen jasotako terminologiarekin alderatuko dugu osatutako hiztegiarena. Erauzterm erabiltzean, zuzenean jakin daiteke ea termino-hautagaia TZOSen agertzen den ala ez. Hala ere, gerta litezkeen akatsak ekiditeko, kontsultak egin dira TZOSen zuzenean. Glosategia osatzen duten 392 sarreretatik 64 jasota daude TZOSen, hau da, terminoen % 16,32. Nolanahi ere, aipatu beharrekoa da jasotako terminoek TZOSen esleituta eduki dituzten jakintza-alorrak askotarikoak izan direla. 3.2 taulan ikus daitezke agertu diren jakintza-alorrak eta bakoitzeko termino kopurua:

Jakintza-alorra	Termino kopurua
Fisika	33
Zientzia Teknologikoak	11
Kimika	8
Osasun Zientziak	4
Matematika	4
Biziaren Zientziak	3

3.2 taula: TZOSen jasota egon diren terminoek esleituta dituzten jakintza-alorrak






3.2 irudia: TZOSen jasota egon diren terminoek esleituta dituzten jakintza-alorrak

Ikus daitekeenez nola terminoak sei jakintza-arlotan banatuta daude. Banaketa hori guztiz normaltzat har daiteke. Izan ere, irakasgaia lantzeko garaian sahiestezina da beste jakintza-alor batzuekiko loturak egitea eta, ondorioz, espezialitate desberdinetako terminoak erabiltzea. Bestalde, aipatu behar da TZOSen zenbait terminok jakintza-eremu bateko baino gehiagoko etiketa zutela. Halako kasuetan, gure interesetik gertuen zegoen etiketa hartu dugu, eta kasuren batean terminoa TZOSen agertzen ez dela kontsideratu ere bai. Esaterako, *transmisio* sarrerak "zientzia juridikoak" etiketa zuenez, TZOSen jasotako denominazioa Optikan ez bezalako kontzeptua adierazten zuela-eta gure azterketarako interesik gabekoa zela kontsideratu dugu. Ez da hala gertatzen, ordea, beste termino eta espezialitate-eremu batzuekin. Adibidez, *erretina* "osasun zientzietan" kokaturik dagoen arren, Optika arloan ere badu bere balio espezializatua eta, beraz, erabat onargarria da gure azterketarako.

Bestalde, TZOSen jasota ez dauden terminoen artean ikusi dugu, nahiz eta termino batzuk osorik ez agertu, batzuetan termino horien osagai nagusia jasota zegoela. Modu horretan aurkitu ditugu, esaterako, *foku/alegiako fokua*, *ardatz/ardatz nagusi*, *islapen/barne-islapen*, *desplazamendu/desplazamendu-bektore*, *distantzia/distantzia-fokal*...

TZOSen aurkitutako terminoen osagai kopuruari erreparatuta datu aipagarria lortu dugu. Ikus dezagun nola banatzen diren TZOSen ageri diren terminoak osagai kopuruaren arabera 3.3 irudian:



3.3 irudia: TZOSen ageri diren terminoak osagai kopuruaren arabera

Hiztegian bi osagaiko terminoak nabarmen nagusitzen badira ere, TZOS plataforman dagoeneko jasota dauden termino gehienak osagai bakarrekoak dira. Kontuan izan behar dugu TZOS datu-base terminologikoa oraindik ere osatzen ari dela eta TSE programaren barnean sortzen diren hiztegiez osatzen dela. Beraz, normaltzat jo daiteke gure jakintza-alorreko termino konplexuak ez agertzea eta detektatu ditugunak osagai bakarreko hiztegi-unitate ez hain konplexuak izatea.

### 3.2.2 ZT Hiztegiarekiko erkaketa

Aztertzen ari garen irakasgaien erabiltzen den terminologiak ohiko kontsultabaliabideetan duen presentzia zenbaterainokoa den ikusteko bidean, Elhuyarren ZT Hiztegi Entziklopedikorekin alderatu ditugu gure hiztegiko sarrerak.

Erauztermek eskaintzen duen informazioari esker esan dezakegu ZT Hiztegian 115 sarrera badaudela, hau da, % 29,33. Datua esanguratsua da: nahiz eta zientzia eta teknologian erreferentziatzat hartzen diren hiztegia izan, bertan agertzen ez diren 277 termino detektatu dira lan honi esker.


### 3.2.3 Euskalterm-ekiko erkaketa

Bildu dugun terminologia ohiko kontsultabaliabideetan zenbateraino jasota dagoen aztertzen bukatzeko, Euskalterm terminologia-banku publikoan ere bilatu ditugu, eskuz, gure hiztegiko terminoak. Horrez gain, Euskaltermek termino bakoitzari jakintza-alor bateko etiketa esleitzen dionez, sarrera bakoitza zein jakintza-alorretan ageri den ere aztertu dugu.

Egindako azterketaren ondorioz, esan dezakegu, hiztegia osatzen duten 392 sarreretatik 134 ageri direla Euskaltermen: % 34,18. TZOSen bezala, termino bakoitzak duen jakintza-alorreko etiketa askotarikoa izan daiteke. Kasu honetan 11 jakintza-alorretan banatu dira terminoak. Ikus dezagun nolakoa den banaketa hori 3.3 taulan:

Jakintza-alorra	Termino kopurua
Fisika	67
Kimika	13
Matematika	11
Arteak	9
Elektrizitatea eta elektronika	7
Biologia	7
Industria	5
Astronomia	5
Medikuntza	2
Geologia	1
Laburtzapenak	1

3.3 taula: Euskaltermen ageri diren terminoek esleituta dituzten jakintza-alorrak



3.4 irudia: Euskaltermen ageri diren terminoek esleituta dituzten jakintza-alorrak


Euskaltermetik atera ditugun datuak aztertzeke, azpialorrak zeintzuk diren ikusiko dugu. Zenbakiei begiratuta, *Fisika* alorreko terminoak nabarmen nagusitzen direla ikus daiteke (% 52,34). Fisika alorrean hainbat termino azpialorretan banatuta daude eta termino gehien biltzen dituen azpiatala *Fisika – Optika* da. Agertu diren beste azpialorrak dira *Fisika – Mekanika* eta *Fisika – Oinarrizko*

*partikulak*. Beste termino batzuk *Elektrizitatea eta Elektronika* edo *Astronomia* etiketa dute. Horiek ere, Fisikatik gertuko jakintza-eremutzat har litezke.

Agerpen gehien dituen bigarren jakintza-alorra *Kimika* da (% 10). Gogoratu TZOSen ere *Kimika* agerpen gehien zituenen artean egon dela. Azpialorrari erreparatzen badiogu, ohar gaitezke *Kimika – Laborategia* arloan daudela bilduta Euskaltermen aurkitutako terminoak. Hori kimikako laborategian erabiltzen diren hainbat prozedura optikarekin lotuta daudelako gertatzen da.

Aipagarria da badirela *Arteak* etiketa duten sarrerak ere. Azpialorrari erreparatuta, erraz azal dezakegu termino horien koherentzia. Izan ere, *Arteak-Irudia* azpialorrean ageri dira terminoak eta, irudi-eraketa dela-eta erlaziona ditzakegu optikarekin.

Euskalterm-en ageri diren terminoak nolakoak diren eta duten konplexutasuna aztertzeko, oraingoan ere, osagai kopuruaren arabera egingo dugu sailkapena.




3.5 irudia: Euskaltermen ageri terminoak osagaien arabera

3.5 irudian ikus dezakegu osagai bakarreko eta bi osagaiko terminoak nahikoa parekatuta daudela. Hiru osagaiko terminorik ez da ageri Euskalterm terminologia-banku publikoan. Euskalterm datu-basea orain arte aztertutako kontsulta-baliabideak baino osatuago dagoela esan dezakegu. Jasota dauden termino kopurua handiagoa da, eta ez dira soilik hiztegi-unitate bakunak ageri, osagai gehiago dituzten terminoak ere badaude kontsultagai.

### 3.3 Datuen analisisa

Kontsulta-baliabide eta datu-base terminologikoetatik atera ditugun datuak elkarren artean konparatu eta aztertuko ditugu jarraian.

Gure terminoen presentzia hiru plataformatan aztertu dugu, (TZOSen, ZT Hiztegia eta Euskaltermen), eta lortutako emaitzak ikus daitezke 3.6 irudian:




3.6 irudia: Agerpen kopurua (%)

Argi dago agerpen kopuru baxuena TZOSen gertatu dela eta Euskaltermek bikoiztu egiten duela. Bien tartean kokaturik dago ZT Hiztegia. Hiruren arteko alde hori aztertzeke, plataforma bakoitzaren berezitasunak hartu behar dira kontuan. TZOSEk terminologia akademiko erreala biltzen du eta osatze bidean dagoen kontsulta-baliabidea da. Lan hau kokatzen den TSE programan egiten diren hiztegiez osatzen denez, hemen agertzen diren terminoak, beste jakintza-alorretan egin diren lanen arabera izan da, eta gehiago egin ahala, agerpen kopurua eta terminoen konplexutasuna handiagoa izango dela suposa daiteke. Euskaltermen berriz, terminologiaren normalizaziorako, Eusko Jaurlaritzaren Terminologia Batzordearen bermea duen terminologia dago kontsultagai.

Gure datuak beste jakintza-alor batzuetakoekin alderatzeko, TSE programaren metodologia berarekin egindako beste lan batzuetan lortutakoekin alderatuko ditugu: hasteko, Informatika Fakultatean ematen diren *Analisi Matematikoa eta Kalkulua* irakasgaietako hiztegi-takako terminoen %71 jasota daude Euskaltermen[10]. Bigarrenik, Zientzia eta Teknologia Fakultatean irakasten den *Esperimentazioa Kimika Fisikoan* irakasgaiko terminoen % 65 [11] ageri dira. Azkenik, fakultate berean eskaintzen diren *Biokimika* eta *Oinarrizko Metodologia Biokimikoa* irakasgaien hiztegi-takako terminoen % 52 eta % 55 daude jasota Euskaltermen, hurrenez hurren. [12] Zenbaki horiek kontuan hartuta, esan daiteke *Optika* irakasgaiko presentzia baxuagoa dela kontsulta-baliabideetan aztertutako beste irakasgai horietakoak baino. Edo, beste era batera esanda, lan honi esker hiztegi eta datu-baseetan jasota ez dauden termino gehiago detektatu ditugu, eta ekarpen esangarria egin diogu terminologia akademikoaren deskripzioari.

Orain arte terminoak kontsulta-baliabideetan ageri diren ala ez izan dugu kontuan baina, horretaz gain, kontsulta-baliabide horietako bakoitzean zein termino ageri diren ikusi eta alderatu dugu. Hasteko, TZOS plataforma oinarri hartuta, kontsulta-baliabide horretan ageri diren terminoak, ZT Hiztegia eta Euskaltermen ageri direnekin alderatu ditugu. Era horretan, jakin ahal izan dugu kontsulta-baliabide desberdinetan detektatu diren hiztegiko sarrerak bat datozen ala ez.

Hasteko, TZOS plataforma ZT Hiztegiarekin alderatu dugu eta lehenengoan detektatu ditugun 64 terminoetatik 53 (% 82,8) ZT Hiztegia ere aurkitu dira. Euskaltermekiko alderaketa eginda lortutako datua ere oso antzekoa da: Kasu honetan 52 (% 81.25) dira bi kontsulta-baliabideetan detektatu diren terminoak.



3.7 irudia: TZOSen ageri diren terminoak beste kontsulta-baliabideekin alderatuta


3.7 irudian oinarrituta esan dezakegu TZOSen detektatu diren termino gehienak beste plataformetan ere detektatu direla. Hala ere, aipagarria da, esaterako, *polarizatzaile* edo *difrakzio* bezalako sarrerak TZOSen bakarrik ageri direla.

## 4 Terminoen azterketa linguistikoa

Laugarren atalean hiztegia osatzen duten terminoen azterketa linguistikaren emaitzak azalduko ditugu, Optika irakasgaiaren erabiltzen den terminologiaren profilararen irudia osatzeko asmoz. Lehenbizi, terminoak semantikoki sailkatuko ditugu. Ondoren sarreren sorkuntza-bideak aztertuko ditugu eta, azkenik, begirada bat emango diogu aldakortasunari.

### 4.1 Azterketa semantikoa

Hiztegiaren azterketa semantikoa egiteko, sarrera bakoitzari etiketa semantiko bat esleitu diogu, hau da, termino bakoitza erreferentzia egiten dion kontzeptu-kategoria batekin lotu dugu, terminoen sailkapen semantiko bat lortzeko asmoz. 392 sarrerak, 32 kategorია semantikotan banatu dira. Etiketa semantikoak ezartzean, hausnarketa egin behar izan da gure jakintza-alorrean termino bakoitzak erreferentzia egiten dion kontzeptuaz edota duen esanahiaz. 4.1 irudian ikus daiteke hiztegiko terminoen banaketa semantikoa.



4.1 irudia: Hiztegiko terminoen sailkapen semantikoa


Agerikoa da etiketa semantikoen sorta oso zabala dela. Espero zitekeen bezala, aztertzen ari garen jakintza-alarra Optika denez, termino gehien biltzen dituzten multzoak *tresna optikoak* eta *fenomeno optikoak* dira: 58 eta 56 sarrera, hurrenez hurren. Horien atzetik daude *toki geometrikoak* eta *magnitudeak*, horiek ere Optika jakintza-alorrarekin lotuak. Ohar gaitezen termino kopuru txikiagoko etiketak Optikarekin erlazionatuta egonagatik ere, orokorragoak direla. Horien artean aurki ditzakegu, *Fisikaren jakintza-alarra*, *objektu fisikoa* edota *neurketa tresna* bezalako taldeak. Kategoria semantiko bakoitzean sartuta dauden terminoak C eranskinean aurki daitezke.

## 4.2 Denominazioen egitura

Lan honetan, irakasgaiko terminologia osatzen duten denominazioen egitura aztertu da, haien sorkuntza-bidea kontuan hartuta. Azterketa honen helburua izan da Optika arloko euskarazko terminologia sortzeko egin den hiztegi-sorkuntzarako bideen ustiapena ikustea. Gure azterketarako hiztegiko sarrerren sinonimoak edo aldaki diskurtsiboak ere kontuan hartu ditugu. Lehen urrats batean honako sailkapena egin dugu:

- termino bakunak: (*izpi, argi, uhin...*)
- eratorriak: aurrizki edo atzizki bidez eratutakoak: (*monokromatikotasun, hedapen...*)
- hitz elkartuak: bi osagai beregain elkartuz sortutako unitate konplexuak (*ikusmen-handipen, fase-aldaketa...*)
- termino sintagmatikoak: hitzak sintaktikoki konbinatuz sortutako terminoak (*argi natural, begi amtrope*)

Irizpide horiei jarraituz, honelakoa da lortutako banaketa:




4.2 irudia: Denominazioen egitura hiztegi-sorkuntzarako bideen arabera



4.2 irudian ikus daitekeenez, sorkuntza-bide nagusia sintagmazioa da, ia glosategiko sarreren erdiak bide horretatik osatu baitira. Atzetik datoz hitz elkartuak eta termino bakunak. Eratorpena, berriz, gutxien erabili den sorkuntza-bidea da. D eranskinean ikus daiteke termino bakoitzaren sorkuntza-bidea.


Azterketa sakonago bat egiteko asmoz, sorkuntza-bide bakoitzaren azpimotak ere aztertu ditugu. Lehenik eta behin, termino sintagmatikoak osatzeko erabili diren erregela sintaktiko zehatzak aztertu ditugu, eta 4.3 irudian ageri den egitura-patroien banaketa aurkitu dugu.



4.3 irudia: Termino Sintagmatikoen banaketa egitura-patroi sintaktikoen arabera. Legendako laburdurak: I=izena; adj=adjektiboa; P=postposizioa; Partiz=partizipioa; adb=adberbioa

Sintagmazio bidez sortutako termino gehienak, % 57, izena + adjektiboa konbinatuz sortu dira. Esaterako, *argi destrogiro*, *izpi kolimatu*, *polarizazio lineal*... Are gehiago esan dezakegu, datuak xehe aztertuta, hiztegiko sorkuntza-bide nagusia da hau, bide horretatik sortutako terminoak 117 baitira, hitz-elkarketaz sortutakoak baino gehiago, hain zuzen ere.


Hitz elkartuei dagokienez, hiru mota bereizi ditugu osagaien arteko harremanaren arabera: mendekotasunezkoak, aposizioak eta izen elkartu lexikalizatuak. 4.4 irudian ikus daiteke terminoen harreman horien araberako banaketa:



4.4 irudia: Hitz elkartuen banaketa osagaien arteko harremanaren arabera

Ez dago inolako zalantzarik hitz elkartuak sortzeko bide nagusia mendekotasunezkoa dela. Mendekotasunezko hitz elkartuetan osagai bat burua edo ardatza da eta bestea horren mendekoa. Adibidez, *fronte-zatiketa*, *kanpo-islapen* eta *dispertsio-prisma* terminoek zatiketa, islapen eta prisma mota bat adierazten dute hurrenez hurren. Aposizioz osatutakoak, gutxiengoa izanagatik ere, gure jakintza-arloaren bereizgarriak dira. Ikertzaile baten eta horrek aurkitutako edo diseinatutako objektu, funtzio edota teorema adierazten dute: *Rochon prisma*, *Nicol prisma*....

Termino bakunei dagokienez, hitzaren jatorria izan da gure irizpidea, hau da, euskal hitzak eta maileguak bereizi ditugu. Banaketa hori 4.5 irudian ikus daiteke:



4.5 irudia: Termino bakunen banaketa jatorriaren arabera

Espero zitekeen bezala, banaketa honetan mailegutza da nagusi. Sorkuntzabide hori hizkuntz ukipenaren emaitzarik ezagunenetarikoa da, eta garapen bidean dauden hizkuntzetan, euskara bezalako hizkuntzetan, ezinbesteko tresna da. Adibide onak dira *presbizia*, *teleskopio* eta *pentaprisma* bezalako terminoak. Bestalde hiztegian agertu zaizkigun euskal hitzetako batzuk dira *argi*, *uhin* eta *irudi*

### 4.3 Terminoen aldakortasuna

Hiztegiaren azterketa linguistikoarekin jarraitzeko, termino-zerrendan detektatu dugun aldakortasuna aztertu dugu. Gaur egun, terminoen aldakortasuna guztiz onartuta dagoen fenomeno da. Batetik, ezinbestekoa da terminoen aldaki desberdinak erabiltzea diskurtsoaren garapenaren eskakizunetara erantzuteko. Bestalde, terminoen aldakortasuna kudeatzen jakin behar dute adituek beren diskurtsoak komunikazio-egoera desberdinetara moldatu nahi dituztenean, esaterako, espezializazio edo abstrakzio maila desberdinetako diskurtsoetan.

Aldakortasunaren azterketan, bi eratako aldakortasuna bereizten da [8]. Batetik, autore batek sortutako testu baten (edo batzuen) barruko aldakortasuna dugu, autoaldakortasuna. Bestetik, hainbat egileren testuetako aldakortasuna aztertzen denean, heteroaldakortasunaz hitz egin behar da. Autoaldakortasunerako arrazoi nagusiak arrazoi funtzionalak eta estilo-aldaketak dira. Egile batek erabiltzen duen terminologia alda dezake sortzen dituen testuen espezializazio mailaren arabera, errepikapenak saihesteko eta diskurtso-egoera jakin baten eskakizunetara egokitzeko, besteak beste. Heteroaldakortasunaren kausak, ordea, bestelakoak izan daitezke, geografikoak, kontzeptuen eboluzioak dakarren denboran zeharreko aldaketa e.a.

Aldakortasuna gertatzeko arrazoia edozein izanik ere, gure hiztegiko sarrertan aldakiak detektatzen saiatu gara Optika irakasgaiko irakaslearen testuetan dagoen autoaldakortasuna ikusteko. Heteroaldakortasuna detektatzeko, hiztegiko sarreren eta ZT Hiztegian nahiz Euskaltermen ageri diren forma-aldakiak identifikatu ditugu.

#### 4.3.1 Autoaldakortasuna

Gure hiztegia egile berak sortutako irakas-materialetatik erauzitako terminoez osatuta dago. Autoaldakortasuna detektatzeko, hiztegian bertan ageri diren forma-aldakiak detektatu ditugu. Guztira 29 sarrerek dute aldakiren bat. Gainera, aldaki horiek zein motatakoak diren ere bereizi dugu. 4.1 taulan ikus daiteke aldaki-mota desberdinen kopuruak eta, horren azpian, aldaki moten definizioa

eta adibideak.

Aldaki-mota	Aldaki kopurua
Forma hedatua vs laburketa	6
Aldaki lexikoak	14
Aldaki morfosintaktikoak	8
Zehaztapena	1

4.1 **taula:** Autoaldakortasunaren azterketa

- Laburketak: ekonomia linguistikoaren bila erabilitako aldakiak *begi-nini/nini*, *behatzaile ametrope/ametrope*, *Fraunhoffer-en difrakzio-irudi*, *Fraunhofer-en irudi*
- Aldaki lexikoak: baliokideak diren bi hitz, sinonimoak: *lente bakun/leiar bakun*, *lerro espektral/marra espektral*
- Aldaki morfosintaktikoak: eraketa-arau morfologiko (eratorpena edo hitz-elkarketa) edo sintaktiko (sintagmazioa) desberdinak erabiltzearen ondorioz sortzen diren aldakiak: *irudi-plano/irudiaren plano*, *distantzia fokal/foku-distantzia*, *polarizaturiko argi/polarizatutako argi...*
- Zehaztapena: terminoak adierazten duen kontzeptuaren alderdiren bat esplizitatzen dutenak: *difrakzio/difrakzio-efektu*

#### 4.3.2 Heteroaldakortasuna

Autore berak sortutako testuetan detektatutako forma-aldakiak aztertu ondoren, heteroaldakortasuna aztertu dugu. Horretarako, eskura ditugun kontsultabaliabideetan, ZT Hiztegia eta Euskaltermen, aurkitu ditugun hiztegiko terminoen forma aztertu eta gure hiztegiko sarreren forma desberdinak identifikatu ditugu.

Identifikatu ditugun forma-aldakiak hauek izan dira:

- Lexikoak: termino beraren sinonimo desberdinak dituztenak: *anplitude-zatiketa/anplitude-distortsio*, *Balmer-en segida/Balmer-en serie*.
- Morfologikoak: *desbideraketa/desbiderapen*, *espektro ikusgai/espektro ikuskor*, *handipen/handitze*.

Aipagarria da gure irakas-materialetatik kanpo aurkitu dugun forma-aldaki kopurua oso txikia dela. Hau da, esan dezakegu heteroaldakortasun baxua gertatzen dela jakintza-alor honetan. Hori azaltzeko, kontuan izan behar dugu ohiko kontsuta-baliabideetan egin dugula forma-aldakien bilaketa eta jasota dauden termino kopurua ez zela oso handia.



## 5 Ondorioak

- Lan honetan UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatean irakasten de Fisikako Graduko Optika irakasgaiaren erabiltzen den terminologia erreala identifikatu eta terminologia-hiztegia osatu da. Guztira 392 termino detektatu dira, eta horiek hiztegi eleaniztun batean bildu dira.
- Detektatutako terminoak eskura ditugun kontsulta baliabideetan agertzen direnekin alderatu ditugu, Optikako terminologia zenbateraino dagoen jasota ikusteko. Terminologia Zerbitzurako Online Sistemari 64 termino detektatu dira, hau da, terminoen % 16,32 solik dago jasota. Elhuyarren ZT Hiztegian detektatutakoak 115 izan dira, % 29,33. Azkenik Euskalterm datu-base terminologikoan ere egin dugu bilaketa, eta 134 sarrera aurkitu ditugu, % 34,18.

Beraz, ondoriozta dezakegu irakasgaiaren erabiltzen diren termino gehienak ez daudela jasota kontsulta-baliabideetan. Aurretik egin diren beste lan batzuekin alderatuta ere, gure espezialitate-alarrean aurkitu ditugu termino gutxiak. Izan ere, beste irakasgai batzuetan, kontsulta baliabideetan jasota dauden terminoen portzentajea %50 baino handiagoa da.

Ondorioz, esan genezake lan honek ekarpen bat egiten diola euskarazko terminologia akademikoaren deskripzioari, aurrez detektatu gabeko terminoak identifikatzea lortu baita. Gainera, TZOS kontsulta-baliabidearen osatzeari ere lagunduko dio lan honek, Optika jakintza-alar espezializatuko terminologia erreala ikusgai egiten lagundu baitu.

- Kontsulta-baliabideetan jasota dauden terminoen jakintza-alarrak ere ikeritu ditugu. Espero genuen bezala, jakintza-alar nagusia Fisika/Fisika-Optika izan da, baina, hala ere, beste jakintza-alar batzuetan kokatzen diren terminoak ere ugariak izan dira. Besteak beste, Kimikan edo Zientzia Teknologikoetan erabiltzen diren terminoak ere Optikan erabiltzen direla esan dezakegu.
- Osatutako hiztegiaren azterketa linguistikoa ere egin dugu. Hasteko, etiketa semantikoak esleitu dizkiegu hiztegiko sarrerei bakoitzaren kategoria semantikoa identifikatzeko. Irakas-materialetan aurkitutako termino gehien biltzen dituen kategoria semantikoa, *tresna optikoak* eta *fenomeno optikoak*

dira. Aipagarria da, baita ere, etiketa semantikoen ugaritasuna, guztira 32 kategoria semantiko bereizi baitira.

- Denominazioen egiturari dagokionez, hiztegiko sarrera gehienak termino sintagmatikoak direla ikusi dugu. Izena + adjektiboa egitura oso erabilia da hiztegiko sarreretan, eta adibideak ere oso argiak dira. Detektatu den beste sorkuntza-bide emankor bat aposizioena izan da, ikertzaile baten eta fenomeno edo teorema baten arteko lotura egiten dutenak.
- Autoaldakortasunari dagokionez, irakas-materialetan hainbat forma-aldaki detektatu dira. Beraz, irakasgaiaren zehar diskurtsoaren garapen egokia lortzeko baliabide hori erabili ohi dela esan daiteke. Heteroaldakortasuna, ordea, askoz ere neurri txikiagoan detektatu dugu. Ohiko kontsulta-baliabideetan jasota dagoen termino kopurua zenbatekoa den kontuan hartu behar dugu, heteroaldakortasuna detektatzeko TZOS, ZT Hiztegian eta Euskaltermen egin baititugu kontsultak. Lan honetan sortutako hiztegiak egindako ekarpenarekin, ordea, etorkizunean zientzien arloak egiten diren antzeko ikerlanetan, alderaketak egiteko aukera handiagoa izango da eta, beraz, posible izango da heteroaldakortasuna maila handiagoan detektatzea ere.
- Bukatzeko, lanak izan dezakeen aplikazio praktikoa aipa daiteke. Irakasleen eta adituen arteko komunikazio-sarea sendotzeaz gain, ikasleei ere ekarpen bat egiten baitie. Hasieran esan dugun bezala, unibertsitatean ikasitako kontzeptu eta ideaiak, edota ikerketa baten emaitzak azaltzea funtsezkoa da goi-mailako aditu izan nahi duen ororentzat. Horrelako hiztegi bat eskura izatea, beraz, erabat lagungarri izango da, euskarazko terminoen denotazioaren inguruko zalantzak argitzeaz gain, adituak izateko ikasten ari diren ikasleek alorreko terminoen beste hizkuntzetako ordainak ezagutzeko aukera ere izango baitute.



## 6 Bibliografia

### Erreferentziak

- [1] M.T. CABRÉ, Terminología y Normalización Lingüística, In *X. Alberdi eta P. Salaburu(ed.) Espezialitate Hizkerak eta Terminologia Jardunaldiak*. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 2003, 11-26 or.
- [2] I. SAN MARTIN, Terminologia Sareak Ehunduz: Unibertsitateko ikasgeletan erabiltzen den terminologia erreala ikusgai egitea helburu duen programa. In *Ugarteburu Terminologia Jardunaldiak (V), terminologia naturala eta terminologia planifikatua euskararen normalizazioari begira*. X. Aierdi eta P. Salaburu, Ed. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 2013, 20-32 or.
- [3] G. PARODI, El discurso especializado escrito en el ámbito universitario y profesional: Constitución de un corpus de estudio, *Revista Signos*, 2007, 40(63), 147-178.
- [4] I. ZABALA, I. SAN MARTIN, M. LERSUNDI, A. ELORDUI, Graduate teaching of specialized registers in a language in the normalization process: towards a comprehensive and interdisciplinary treatment of academic Basque, In *Multiple Voices in Academic and Professional Discourse: Current Issues in Specialised Language Research, Teaching and New Technologies*, S. Maruenda-Bataller, B. Clavel-Arroitia, Ed. Cambridge Schoars Publishing: Newcastle, 2011, 208-218 or.
- [5] I. ZABALA, I. SAN MARTIN, M. LERSUNDI, Linguistic and Sociolinguistic factors that influence the detection, implantation and circulation of natural terminology in academic uses of Basque, In *La néologie en langue de spécialité. Neology in specialized languages. La neología en lengua de especialidad*, P. Dury, J.C. De Hoyos, J. Makri-Morel, F. Maniez, V. Renner, M.B. Villar Díaz, Ed. Publications du CRTT, Lyon, 2013.
- [6] X. ARREGI, A. ARRUARTE, X. ARTOLA, M. LERSUNDI, G. SANTANDER, J. UMBELINA, Terminologia Zerbitzurako Online Sistema, In, *Ugarteburu Terminologia Jardunaldiak: euskararen garapena esparru akademikoetan*, X. Alberdi, P. Salaburu, Ed. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 2010, 136-153 or.

- [7] A. ELORDUI, I. ZABALA, Terminological Variation in Basque: Analysis of Texts of Different Degrees of Specialization, In *SKY Journal of Linguistics* 18; 2005, 71-91 or.
- [8] J. FREIXA Variación terminológica: ¿Por qué y para qué?, *Meta. Journal des Traducteurs*, 50(4), Les Presses de l'Université de Montréal, 1492-1421.
- [9] M.T. CABRÉ, La terminología. Teoría, metodología, aplicaciones, *Antártida/Empúries*, Barcelona, 1993.
- [10] P. ANGULO, I. ZABALA, Matematikako terminologia: erabilera erreale-tik hiztegi-tara, In *Ugarteburu Terminologia Jardunaldiak (V), terminologia naturala eta terminologia planifikatua euskararen normalizazioari begira*. X. Aierdi eta P. Salaburu, Ed. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 2013, 50-73 or.
- [11] S. SUAREZ, "Esperimentazioa Kimika Fisikoan" Kimika Gradu-irakasgai-aren terminologia-glosategia egitea eta terminologia aztertzea, *Gradu Amaierako Lana*, Zientzia eta Teknologia Fakultatea, UPV/EHU, 2014.
- [12] I. ZABALA, M. LERSUNDI, M. MARTINEZ, M.A. REQUERO, M.J. OMAE-TXEBARRIA biokimikaren terminologiaren deskrepzioa: erabilera erreale-tik hiztegi-tara, In *Beatriz Fernandez eta Pello Salaburu (ed.), Ibon Sarasola, Gorazarre, Homenatge, Homenaje*, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 2015, 679-692 or.

## A Eranskina - UPV/EHU datuak

A.1 taulan, urtez urteunibertsitatera sartzeko hautaprobak euskaraz egin dituzten ikasleen portzentajea eta lehen urteko matrikula euskaraz egin dutenena ikus daiteke.

<b>Ikasturtea</b>	<b>Hautaprobak</b>	<b>Matrikulazioak</b>
1997-1998	%30,01	%23,46
1998-1999	%32,62	%26,24
1999-2000	%35,43	%27,25
2000-2001	%38,01	%30,53
2001-2002	%45,13	%36,14
2002-2003	%46,36	%35,73
2003-2004	%47,77	%37,82
2004-2005	%50,07	%39,60
2005-2006	%50,40	%42,53
2006-2007	%51,82	%42,52
2007-2008	%54,40	%45,37
2008-2009	%54,94	%46,10
2009-2010	%57,50	%45,79
2010-2011	%60,78	%42,81
2011-2012	%62,08	%46,94
2012-2013	%62,67	%47,39
2013-2014	%63,68	%48,11


A.1 **taula:** Hautapropa eta matrikulazioa euskaraz egin dutenen bilakaera

A.2 taulan berriz, Fisikako Graduko lehen urteko euskaraz egindako matrikulazio datuen bilakaera dago ikusgai

<b>Ikasturtea</b>	<b>Matrikulazioak</b>
2002-2003	%46,03
2003-2004	%49,58
2004-2005	%51,11
2005-2006	%50,88
2006-2007	%59,65
2007-2008	%48,33
2008-2009	%60,00
2009-2010	%65,79
2010-2011	%62,50
2011-2012	%53,01
2012-2013	%52,44
2013-2014	%60,98

A.2 **taula:** Fisikako Graduan lehen matrikula euskaraz egin dutenen bilakaera

Goiko tauletako bilakaera ikus daiteke A.1 irudian



A.1 irudia: matrikulazioen bilakaera

**B Eranskina - Hiztegi eleaniztuna**

OPTIKA IRAKASGAIKO  
TERMINOLOGIA-HIZTEGI  
ELEANIZTUNA



JAKINTZA ALORRA

Fisika > Optika

ITURRIA

Zientzia eta Teknologia Fakultatea > Fisikako Gradua > Optika

EGILEAK

Zabala, I; Etxebarria, I; Garralda, M

EUSKARA	ALDAKIAK	GAZTELERA	ALDAKIAK	INGELESA
Abbe-ren sinu-baldintza		relación de senos de Abbe		Abbe sine condition
Abbe-ren zenbakia		número de Abbe		Abbe number
aberrazio		aberración		aberration
aberrazio esferiko		aberración esférica		spherical aberration
aberrazio geometriko		aberración geométrica		geometric aberration
aberrazio kromatiko		aberración cromática		chromatic aberration
Airy-ren disko		disco de Airy		Airy disk
Airy-ren formula		fórmula de Airy		Airy formula
akoplamendu-distantzia		distancia de acoplamiento		coupling distance
akromatismo		acromatismo		achromatism
albo-handipen		aumento lateral		linear magnification
alegiako foku		foco virtual		virtual focus
